

## EKITALDIAK-EVENTOS / SIDRERÍAS-SAGARDOTEGIAK

“GU ITSASOA, munduaren ataria”  
erakusketa Petritegi sagardotegian.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 02/05/2013 · 10:12

Sin comentarios



**Martxoaren hasieratik ekaina bitartean** ikusgai egongo da **Petritegi sagardotegian** “**GU ITSASOA, munduaren ataria**” erakusketa. Erakusketa honekin, **itsasoaren eta sagardogintzaren historia Euskal Herrian Petritegi baserriaren historiarekin batera** uztartuz erakutsi nahi du Petritegi sagardotegiak.

**GU Itsasoa** proiektu bat da, XVI. mendean Euskal Herriko itsas kulturari estulotutako lurralde honek izan zuen eboluzioa ikertu, hedatzera eman eta balioestea helburu duena. Itsas industriaren garapena bultzatu zuten funtsezko gakoetara zeharka hurbiltzen da, kontuan hartuta berebiziko garrantzia izan zuen industria izan zela, gizarte osoa eta lurralde osoa bornean hartu baitzituen, barrualdetik kostalderaino.

Euskal lurraldeak garaiko boteregune nagusietakoa izaten lagundu zuten ezaugarriak aurkezten ditu, produkzio sektore guztiak partaide egin zituen prozesu batean: meatzeak, basoak, burdinolak, ontziolak, nekazariak, sagardogileak, merkatariak, itsasgizonak...

**GU itsasoa** epe luzerako proiektua da, etengabe garatzen doana, formatu anitzetarako pentsatua, eta lankidetzara eta gizartearen partaidetzara irekia. Hiru kultur erakunde hauen nahiberak bultzatuta sortua da: Albaola Itsas Ondarea, Zerain Paisaia Kulturala – Zeraingo Udala, Igartubeiti Baserri Museoa.

**Informazio gehiago:**

- <http://www.guitsasoa.com>
- <http://www.petritegi.com>

**Iturria:** <http://www.petritegi.com>

**Tags:** astigarraga, erakusketa, exposición, Gu itsasoa, historia, itsasoa, mar, Petritegi, sagardoa, Sidra

*Anterior post*

Mayo 2013: Sidras de Lizeaga y Petritegi para degustar en Sagardoetxea. 2013ko maiatza: Lizeaga eta Petritegi sagardoak dasta daitezke Sagardoetxean.

*Siguiente post*

Más de 4.000 botellas de sidra para degustar en el Sagardo Eguna de Irun.4.000 sagardo botila baino gehiago larunbateko Irungo Sagardo Egunerako.

## Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*


Web



## Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48  
20115 Astigarraga  
t: 00 34 943 550 575  
f: 00 34 943 559 575  
[info@sagardoarenlurraldea.com](mailto:info@sagardoarenlurraldea.com)  
[www.sagardoarenlurraldea.com](http://www.sagardoarenlurraldea.com)

[RSS Feed](#)  
[Twitter](#)  
[Facebook](#)

## Buscar / Bilatu

## Categorías

[Azokak-Ferías](#)  
[Besteak-Otros](#)  
[Ekitaldiak-Eventos](#)  
[Esperientziak-Experiencias](#)  
[Formazioa-Formación](#)  
[Gastronomia-Gastronomía](#)  
[Historia-Historia](#)  
[Kultura-Cultura](#)  
[Lehiaketak-Concursos](#)  
[Museos-Museoak](#)  
[Sagarra-Manzana](#)  
[Sagastia-Manzanal](#)  
[Sidra-Sagardoa](#)  
[Sidrerías-Sagardotegiak](#)  
[Turismoa-Turismo](#)

## Post Recientes



“Sagastiak loretan”  
ARGAZKI LEHIAKETA  
Facebook-en.



“Baserri munduko memoria” sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.



2013 UDA: “SAGARDOA  
ETA ITSASOA”  
esperientzia turistikoa



Lezon Sagardo Eguna ospatuko da larunbat honetan.